

## PRIBATUTASUN-POLITIKA ETA LEGE-OHARRA: DATU PERTSONALEN BABESA

**IÑIGO GARATEA ALCALDE**, **IFZ: 78894983-S** eta **GARATEA ALTZARIAK** izen komertziala duenak, zure beharrianak asebeteko dituen kalitatezko zerbitzua eskaintzeko lan egiten du. Batzuetan, eskatu dizkiguzun zerbitzuak kudeatu ahal izateko, informazio eta datu pertsonalak jaso beharko ditugu. Zure pribatutasunaz ari garela kontutan hartuta, horren tratamenduari dagokionez erabateko gardentasuna bermatu nahi dugu; hortaz, zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko Pribatutasun Politika eskuragai daukazu.

### 1. Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna

**GARATEA ALTZARIAK**en zerbitzuren bat eskatzen duzunean, zure datu pertsonalen tratamenduaren ardura daukana **IÑIGO GARATEA ALCALDE** da:

- > **Izena:** Iñigo Garatea Alcalde
- > **IFZ:** 78894983-S
- > **Posta helbidea:** Okamika Industrialdea, 1. Fasea - 8. Pabilioia (48289 Gizaburuaga)
- > **Telefonoa:** 644 632 512

### 2. Tratzen ditugun datu pertsonal motak eta kategoriak

Gure harremanak irauten duen bitartean honako datuak eskatu ahalko dizkizugu:

>**Identifikazio eta kontaktu profesionalerako datuak:** Izen eta abizenak, posta helbidea, bidalketa helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoa.

Baliteke harremana daukazun hirugarren baten datuak ere ematea. Hala balitz, datuok erabiliko ditugu, aurretiaz zuk jakinaren gainean jarri dituzula, euren datuak emango zenizkigula esan diezula eta euren datuak zelan tratatuko ditugun azaltzen duen pribatutasun politika honen berri eman diezula ulertzen dugulako. Hala ere, aukera daukagunean pribatutasun politika hau jakinaraziko diegu.

>**Fakturazio eta ordainketa datuak:** Fakturaziorako helbidea eta IFZ/IFK faktura osatu ahal izateko.

>**Informazio/Dokumentazio gehigarria:** altzariz jantzi beharreko etxe edo gelaren planoak gure proiektuen diseinua egin ahal izateko, batez ere eraikuntza-lan berriez ari bagara. Horretaz gain, burututako lanen argazkiak eskatuko dizkizugu gure webgune edota sare sozialetan publikatzeko.

### 3. Zure datu pertsonalak tratatzearen helburuak

Gurekin lotzen zaituen harreman edo hartu-eman motaren arabera, zure datu pertsonalak tratatzearen xedeak hainbat izan daitezke. Honako xedeak identifikatu ditugu:

- >Eskatzen dizkiguzun zerbitzuen aurrekontuak egin eta bidali.
- >Gure zerbitzuak eskaini ahal izateko beharrezkoak diren, baina kanpo hornitzaileei azpikontratatuta ditugun produktu edo zerbitzu jakinen aurrekontuak eskatu.

- >Zure eskaerari erantzuteko, ekoiztu beharreko altzarien diseinua planifikatu eta eskatutako lanen zehaztasunak baieztatzeko hitzordua kudeatu.
- >**GARATEA ALTZARIAK**en titulartasuna daukan edozein bide erabiliz (telefonoa, posta elektronikoa, WhatsAppa edo SMSa) zurekin harremanetan jarri.
- >Kontratatu dizkiguzun zerbitzuen fakturak sortu eta bidali.
- >Gure webgunean edota sare sozialetan burututako lanen argazkiak publikatu.
- >Jasotako dirusarrera edo egindako gastuen aitopenerako zerga-betebeharrak bete.

#### 4. Zure datu pertsonalak tratatzearen arrazoia eta lege-oinarria

**GARATEA ALTZARIAK**eko zerbitzuak eskatzen dituzun unetik aurrera zure datuak tratatu behar ditugu. Zerbitzuren bat kontratatzen diguzunean, harreman horretan lotzen gaituen kontratua gauzatzeko zure datuak beharrezkoak egiten zaizkigu. Kontratua baieztatu aurretiko harremanean ere, aurrekontua prestatzeko edota zerbitzuren bati buruzko informazioa jasotzeko hitzordua eskatzen duzunean esaterako, zure datuekin lan egin eta kudeatu beharko ditugu.

Zerbitzuen kontratazioan iruzurra saihesteko zure datuak gure legeko ardurapean tratatuko ditugu, aurrekontuen jarraipena egiteko telefonoz deitu, emailak edo Whatsapp mezuak bidaliko dizkizugu eta jasotako informazioaren arabera hitzorduak kudeatuko ditugu. **GARATEA ALTZARIAK**en salmenta-jardueraren ohiko prozeduraren ekintzetako bat aurkeztutako aurrekontuen jarraipena burutzea da eta hala egiten dugu aurrekontua eskatzen diguten bezero guztiekin.

**Webgunea eta Sare Sozialak:** Datu hauek kudeatzeko eskubidearen lege-oinarria batzen gaituen kontratuak emanda dator, baita **GARATEA ALTZARIAK**en burututako lanen emaitzak gure webgunean edota sare sozialetan erakusteko daukagun zilegizko interesak ere, gure zerbitzuei publizitatea eman eta horiek zabaltzeko asmoz. Egindako argitalpenetan sekula ez dugu zure datu pertsonalik aipatuko eta aurretiaz baimena eskatuko dizugu.

#### 5. Zure datu pertsonalak norekin partekatzen ditugun

Batzuetan (beharrezkoa baino ez denean) zure datuak kanpo zerbitzuen hornitzaileei ematen dizkiegu. Hornitzaile horiek dagozkien zerbitzuak emateko baino ezin izango dituzte zure datuak erabili. Hortaz, ezin izango dute informazio hori euren xedeen mesederako edo hirugarrenei lagatzeko. Baliteke legeak aginduta, zure datuak erakunde, agintari edo bestelako erakunde publikoei jakinarazi behar izatea. Hala balitz, ezinbesteko datuak baino ez dizkiegu helaraziko.

Beharrezkoa den kasuetan, honako hirugarrenek zure datuak ezagutu litzakete:

- >Banaketa-enpresek.
- >Garraio-, biltegitarte-, muntaketa- eta instalazio-enpresek, baita gailuak batu eta ingurumen-kudeaketa bideratu, hondakinak jaso eta gailu zaharrak desmuntatu eta eramateko enpresek ere.
- >Elektrotresnen zerbitzu teknikoetako enpresek.
- >**GARATEA ALTZARIAK**en webgunea pertsonalizatzen duten enpresek.

>Kontu-ikuskariak, aholkulariak eta aholkularitza eta auditoretza zerbitzuak ematen dizkiguten antzeko enpresek.

>**GARATEA ALTZARIAK** marketing eta publizitate zerbitzuak ematen dizkieten enpresek.

> **GARATEA ALTZARIAK** zerbitzuaren bat emango dioten bestelako enpresek, baldin eta zerbitzu zehatza eman ahal izateko zure datuak erabili behar badituzte.

## 6. Zure datuak ez dizkiegu hirugarrenei lagako helburu komertzialetarako

Zure datuak ez dizkiegu hirugarrenei lagako helburu komertzialetarako erabil ditzaten. Horretaz gain, ez dizugu zuzenean gure produktu eta zerbitzuen informazio komertzialik bidaliko, zuk hala eskatu ezean.

## 7. Zure datuak ez ditugu Estatutik kanpora transferituko

Gure hornitzaile guztiak Estatuan edo Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) kokatuta daude, hortaz, ez dugu zure datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

Bestetik, WhatsApp, Facebook eta Instagram erabiltzeak, EEEtik kanpora datu pertsonalak transferitzea dakar, horretarako Kontratu-Klausula Ereduek erabiliz. Beraz, zure pribatutasun konfigurazioa berrikusi eta euren Pribatutasun-Politika irakur dezazun gomendatzen dizugu, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten erabiltzaileen datu pertsonalen erabilerari buruzko informazio zehatza izan dezazun.

## 8. Zure datu pertsonalak gordeko ditugun denbora

Zure erosketa eta eskaeren datuak bost (5) urtez gordeko ditugu, garantiari buruzko edozein galderari edo eskainitako zerbitzuen gaineko edozein galdera zein kexari erantzun ahal izateko. Zerga-betebeharrei dagokienez, fakturak eta horiekin lotutako agiriak, fakturen kopia eskaerak edo BEZ itzulketak kasu, hamar (10) urtez gordetzera derrigortuta gaude.

## 9. Zure datu pertsonalen gaineko eskubideak

Zure datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, erabil ditzakezun eskubideak zehazten dizkizugu:

>**Datu pertsonaletara sartzeko eskubidea:** **GARATEA ALTZARIAK**ek zuri buruz dituen datu pertsonalen kopia eskatzeko eskubidea daukazu, baita horien erabileraren gaineko informazioa ere. Orokorrean, eskaera horiek interesdunak bere gain inolako kosturik hartu behar barik kudeatuko ditugu.

>**Zuzentzeko eskubidea:** zuri buruz ditugun datuak eguneratu edo zuzentzeko eskatu diezagukezu.

>**Ezabatzeko eskubidea:** zure datuak bertan behera utz ditzagun eskatu diezagukezu. Dena den, kontutan izan eskaera horrek zerbitzuren bat eskaintzeari utzi behar izatea eragin dezakeela.

>**Aurkaritza eta tratamenduaren mugatze eskubidea:** zure datu pertsonalak tratatzeari aurka egin diezaiokezu edo helburu jakin batzuetarako erabili ez ditzagun eskatu diezagukezu.

>**Eskualdatzeko eskubidea:** beharrezko baldintzak betetzekotan, zure datuak erabilera arrunteko formatu elektronikoa eskuratu eta zuk aukeratutako hirugarren bati bidaltzeko eskaera egin dezakezu.

>**Erabaki automatizaturik ez pairatzeko eskubidea (profilak sortzea barne):** tratamendu automatizatuetan oinarritutako erabakien ondorioz ez jasotzeko eskubidea daukazu.

>**Onespena bertan behera uzteko eskubidea:** datu tratamendu zehatzen baterako baimena eman badiguzu, edozein unetan bertan behera utz dezakezula jakinarazten dizugu.

>**Datuen Babeserako Espainiako Agentzian erreklamazioa aurkezteko eskubidea:** inoiz zure eskaerari erantzuten diogun moduarekin bat ez bazatoz edo arduratuta bazaude, Datuen Babeserako Espainiako Agentzian erreklamazioa aurkeztu dezakezu.

## 10. Zure datu pertsonalen gaineko galderarik bai?

**GARATEA ALTZARIAK**en zure datuekin lotutako eskaerarik egin edo zure eskubideak baliatu nahi izatekotan, jar zaitez gurekin harremanetan modu arin eta errazean honako posta elektronikoaren bidez: [info@garatea.com](mailto:info@garatea.com)

## 11. Pribatutasun-politika aldatzea

Pribatutasun-politika hau eguneratu liteke. Oraingo pribatutasun-politika 2022/07/14koa da. Aldiro pribatutasun-politika hau irakur dezazun gomendatzen dizugu.